


DIRU SARRERAK

Diru-sarrerei dagokienez, garrantzitsua da jakitea zenbat eta nola ordaintzeko prest dauden bezeroak eskaintzen diegunaren truke. Gure supermerkatuan ordaintzeko bakarrek diru-sarrerak zein ordaintzeko errepikariak izango ditugu. Ordaintzeko bakarrek diru-sarrerak bezeroak saltokira datozen bakoitzak ordaintzeko duena da. Ordaintzeko errepikariak, aldiz, gure fidelizazio txartelaren truke bezeroek ordaintzeko dutena da. Eskaintza bereziak izango dituzte supermerkatuko produktu ezberdinetan, 30 euroren truke. Horrez gain, urtean zehar puntuak biltzen joango dira, eta urte bukaeran otar-opari berezi bat oparituko zaie.



Horren harira, bezeroek produktuak erostean, gure eta hornitzaileen artean irabazitako diru kopuru bat eramango dugu. Hornitzaileek produktuen %65a hornitzaileek eramango dute, eta beste %35a guk eramango dugu. Guk irabazitako dirua alokairuan, ofizinetan lanean dagoen jendearen soldatan eta produktuak erosteko erabiliko dugu.



Aurretik aipaturiko fidelizazio txartel horren prezioa (30€) prezio finkoen barruan sailkatuko genuke, eta produktuen prezioak dinamikoak dira, espekulazio dela eta.

Hori dena behin enpresa martxan dagoenean lortuko dugu, baina supermerkatua sortzeko beste diru-sarrera batzuk izango ditugu. Erabiliko ditugun finantza-baliabideak guk dauzkagun aurrezkiak eta kapital pribatua izango dira, lagun bat gure enpresa finantziatzera eskaini baita.